

## **AZALPEN OHARRA: ARABAKO LURRALDE HISTORIKOA FINKATZEKO PROZESUAK**

Alkate jauna, alkate Andrea

20/2021 Legea aplikatuz eratorritako prozesuei buruz, honako hau jakinarazten dizuegu.

### **1.- LEHIAKETA PROZESUAREN OINARRI OROKORRETAN ANTZEMANDAKO AKATSA ZUZENTZEA**

Oinarri orokorretako 8.1 artikuluan eta 10.1 oinarriko azken paragrafoan jasotako erreferentzia-daten artean dagoen balizko kontraesanari buruz planteatutako kontsultakopuru handia kontuan hartuta, abenduaren 8ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako Aldi Baterako Enplegua Egonkortzeko Hautaketa-prozesuak arautzen dituzten Oinarri Orokorren 10.1 ataleko azken lerroa ezabatu dela jakinarazten da.

### **2.- EUDELEN WEB-ORRIAN ZIRKULAR ETA DOKUMENTU GUZTIAK DITUEN GORDAILU BAT PRESTATZEA, TOKI-ERAKUNDEEK ERABIL DITZATEN**

Oinarriak eta gomendioa onartu behar dituzten erakundeen lana errazteko, EUDELek honako helbide honetan jaso du eguneratutako beharrezko dokumentazio guztia: <https://www.eudel.eus/destacados/finkatze-prozesuak/eu/>

\*Gordailuan zintzilikatutako oinarriak azken bertsioa dira, eta, beraz, bidezko zuzenketak jasotzen dituzte.

Hori guztia jakinarazten da, dagozkion ondorioak izan ditzan, Bilbon, 2022ko azaroaren 28an.

## **NOTA ACLARATORIA: PROCESOS DE CONSOLIDACIÓN TERRITORIO HISTÓRICO DE ALAVA**

Sr. Alcalde, Sr. Alcaldesa

Sobre los procesos derivados de la aplicación de la Ley 20/2021 les informamos de lo siguiente.

### **1.- MODIFICACIÓN DE LAS BASES GENERALES**

Dado el elevado número de consultas planteadas sobre la posible contradicción entre las fechas de referencia recogidas en el artículo 8.1 de las Bases generales y la fijada en el último párrafo de la Base 10.1 se informa sobre la supresión de este último párrafo del apartado 10.1 de las Bases Generales Reguladoras de los Procesos Selectivos de Estabilización de Empleo Temporal Derivados de la DA 6ª y 8ª de la Ley 20/2021, de 8 de diciembre.

### **2.- HABILITACIÓN EN LA PÁGINA WEB DE EUDEL DE UN REPOSITORIO CON LA TOTALIDAD DE LAS CIRCULARES Y DOCUMENTOS VÁLIDOS PARA SU UTILIZACIÓN POR PARTE DE LAS ENTIDADES LOCALES**

Para facilitar el trabajo de las entidades que deban aprobar las bases y la encomienda, EUDEL ha recogido en la siguiente dirección [www.eudel.eus/destacados/finkatze-prozesuak/](http://www.eudel.eus/destacados/finkatze-prozesuak/) toda la documentación necesaria actualizada.

\*Las Bases colgadas en el repositorio son la última versión, y por tanto contemplan las correcciones oportunas.

Lo cual se comunica a los efectos oportunos en Bilbao, a 28 de noviembre de 2022.